



LIBURUA

Hezur hilek hitz egingo balute



HARALD KRICHEL

ERABILI GOLDEA HILEN HEZURREN GAINETIK

OLGA TOKARCZUK

ITZULTZAILEAK:

AMAIA APALAUZA OLLO ETA SONIA KOLACKZEK

ELKAR

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Izenburua ondo esatea ezinezko egin zait liburua esku artean izan dudaketik. Luzea izateaz gain, inpaktuzko ideia dakarrelako edo, batek daki. Egilearen izena ere ez dut behin ere ondo idazten asmatu. Letrak jan edo lekuz aldatu ditut etengabe, 2018an Literatura Nobel saria irabazi zuen arren.

Hasi aurretik aitortuko dut ikaragarri gustatu zaidala: liburuan sartzea bat-batekoa izan ez den arren, modu sotilean eraman nau basoraino. Egiten dituen deskribapenak ez dira luzeak, baina bai oso bisualak eta esanguratsuak. Detail txikietan bilatzen du esangura eta sentsazioz betetako momentuak deskribatzea lortzen du.

Protagonistaren eskutik garamatza autoreak. Pertsonaia argia, aktiboa, desiraduna eta indartsua da. Ofizioz ingeniaria eta irakaslea eta afizioz astrologoa. Horoskopoaren bitartez per-

tsonaiaren pentsamendu sakonena kontaktzen zaizkigu. Jendea, mundua eta bizitza ulertzeko nahi handia duen norbaiten psikea ikus dezakegu horrela. Izaki bizidun oro maite duen pertsonaia sentsiblea da. Gure jendarteak zorotzat hartzen duen emakume heldua. Nahiz eta bera den enpatikoena, zentzuduna eta osasuntsuena.

Inguruan bizi den ehiztari baten heriotzarekin hasten da liburua. Intrigaz irakurtzen dira jarraian gertatzen direnak ere. Negua, elurra eta bakardadea sumatzen badira ere, Janinaren barne munduak harrapatu nau gehien; ahots narratiboa protagonistarena da eta lehenengo pertsonan egoteak gertutasuna eta indarra ematen dio liburuari. Iluntasun zantzuak txikitu dira eta munda magikoan murgildu nau irakurle gisa. Hausnarketa sakonak eta konplexuak gauzarik sinpleenekin konbinatzen ditu,

esaldi eta ideia bikainak lortuz: “Iluntzean gertatzen baitira gauzarik intergarrienak, orduan ezabatzen baitira desberdintasunik txikienak ere. Ni bizi ninteke iluntsenti betiereko batean”.

Itzulpenaz Amaia Apalauza Ollo eta Sonia Kolaczek arduratu dira. Esker onen atalean irakur dezakegun moduan, konplexutasunez betetako itzulpena izan da. Polonierazko eta ingelesezko bertsioak erabili dira, eta gainera, gai zehatzez hitz egiteko erabili diren hitz teknikoak ugariak dira. Baina sentsibiltatea helaraztea lortu dute eta izenburua gogoratzen lanak izango baditut ere, soinu berezia gordeko dut burmuinean. Itzulpen landua, konplexua eta bikaina da.

Euskaraz autorearen beste liburu bat irakur dezakegu: *Arima galdua*. Arte liburu bezala sortua, ederra, goxoa eta indartsua da. Gozatzen jarrai dezagun. ●